

"EGUBERRIKO TXARTELEN LEHIAKETA"

Iruñeko Udalak "EGUBERRIKO TXARTELEN LEHIAKETA" deitzen du, norgehiagokako araubidean, Iruñeko Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrak (2006ko 21. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua, otsailaren 17koan) xedatzen duenarekin bat.

1.-XEDEA.-

EGUBERRIKO TXARTELEN LEHIAKETA: Lehiaketaren xedea da bizitokia edo ikastetxea Iruñean duten 6 eta 12 urte bitarteko haurrek (Lehen Hezkuntzako ikasleak) egindako lanik onenak saritzea.

Ikasle bakoitzak lan bakarra aurkezten ahalko du modalitateko, paperean edo formatu elektronikoan.

Lanaren gaia librea izanen da, motibo erlijiosoekin edo laikoekin, Iruñean Eguberriak ospatzeari buruzkoa.

2.- SARI-MODALITATEAK.-

Honako sari-modalitate hauek ezarri dira:

- A kategoria: LEHEN HEZKUNTZAKO LEHEN eta BIGARREN MAILAKO ikasleak.
- B kategoria: LEHEN HEZKUNTZAKO HIRUGARREN eta LAUGARREN MAILAKO ikasleak.
- C kategoria: Lehen Hezkuntzako BOSGARREN eta SEIGARREN MAILAKO ikasleak.

3.- DIRU-ZUZKIDURA.-

Deialdi honi, gehienez ere, 2.100 euro esleituko zaizkio sarietarako, Udalaren Aurrekontuko honako partida honen kargura:
80/32630/480000

Sari hauek ezarri dira modalitate bakoitzerako, 2. klausulan adierazitakoaren arabera:

- Lehen saria: 200 euro eskola-materialetan, lan irabazlea aurkezten duen egilearentzat, eta 250 euro eskola-materialetan, ikaslea zein ikastetxetan matrikulatuta egon eta horrentzat (ikastetxea Iruñean badago bakarrik).
- Bigarren saria: 150 euro eskola-materialetan, egilearentzat.
- Hirugarren saria: 100 euro eskola-materialetan, egilearentzat.

Eskolako material-sorta txartel baten bidez jasoko da, eta hori sariak zenbat jo eta horrenbestekoa izanen da. Txartel hori saridunak aukeratutako eskola-materialarengatik trukatu da txartelean bertan aipatzen diren dendetan. Txartela trukatzeko epea lau hilabetekoa da, hura noiz jaulkitzen den eta hortik aitzina. Txartela ez bada adierazitako epean erabiltzen, osorik edo hein batean, Iruñeko Udalak ulertuko du saridunak uko egin diola saria hartzeari edo trukatu gabe utzitako kopuruari.

Saria ordainduta, Iruñeko Udalak egilearengandik eskuratuko ditu, berarendako bakarrik eta mundu-mailan, saritutako lan bakoitzari dagozkion jabetza intelektualeko eskubide ekonomiko guztiak; orobat, lan horiek erreproduzitu, banatu, jendaurrean paratu eta eraldatu ahalko ditu, libreki eta ezer gehiago ordaindu gabe, Jabetza Intelektualari buruzko Legearen Testu Bateratuaren 26. artikulua ezarritako epearen barruan. Eskubidea izanen du, baita ere, lana gaur ezaguna den edo geroan asma daitekeen beste edozein bitarteko edo euskarri ukigarri edo ezin ukituzkotan aurkezteko. Horrek barne hartzen ditu ustiatzeko modalitateak oro, hau da, lana edozein euskarri edo formatutan erreproduzitzekoa, eta horien

artean, bereziki, liburu batean edo euskarri digital edo zenbakizkoan edizioa egitekoa, zein lana banatzeko eta jendaurrean paratzeko eskubideak, mundu osoko merkatuan ustiatzeari begira. Eskubide horien artean, berariaz daude sarturik hala lanak online igorri eta zabaltzea nola Internet erako sare digital elkarreragileetan eskura jartzea.

4.- HAUTAGAIEN BETEKIZUNAK.-

Lehiaketan parte hartzen ahalko dute bizitokia edo ikastetxea Iruñean duten 6 eta 12 urte bitarteko haurrek (Lehen Hezkuntzako ikasleek).

Iruñeko Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 10. artikuluan xedatutakoarekin bat, laguntza hauen izaera berezia dela-eta onuradunei aplikagarri zaizkie arau horretan ezarritako debekuak:

BAI EZ

5.- ESKABIDEAREKIN BATERA AURKEZTU BEHAR DIREN AGIRIAK, ZEIN EPETAN ETA NON.-

LANAK INTERESDUNEK EDO IKASTETXEEK AURKEZTUKO DITUZTE.

Lanak helbide honetara bidali behar dira:

**Hezkuntza, Herritarren Partaidetza eta Gazteriako Alorra - Descalzos k., 72, 31001, Iruña.
Edo helbide elektronikoko honetara: educacion@pamplona.es.**

Halaber, beste edozein bide erabiltzen ahalko da lanak aurkezteko, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikulua aurreikusten dituen artean.

Lanak aurkezteko epea deialdi honen laburpena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den unetik aurrera hasiko da, eta 2020ko azaroaren 27an amaituko.

Lanen neurria gehienez ere 21 x 15 cm-koa izanen da, eta Eguberriekin zerikusia duten gaiak jasoko dituzte.

Lanak paperean entregatuz gero, lan bakoitzak behar bezala errotulaturik egon beharko du, atzeko aldean honako datu hauek adierazita: egilearen izen-deiturak, adina eta ikasmaila, helbidea eta telefonoa, ikastetxea eta irakaslearen izen-deiturak.

Lana formatu elektronikoa aurkeztuz gero, datu horiek txertatu beharko dira erantsitako fitxategi batean.

Saririk jasotzen ez duten lanak Udalaren bulegoetan berreskuratzen ahalko dira, ebazpena argitaratu eta bi hilabeteko epean. Epe hori igarota, Udalak suntsitzen ahalko ditu jaso ez diren lanak, betiere ebazpenaren kontrako errekurtsorik aurkeztu ez bada.

6.- EPAIMAHAIA.-

Epaimahaia Iruñeko Udalak izendatuko du, eta honako hauek osatuko dute:

- Epaimahaiburua: Hezkuntza, Herritarren Partaidetza eta Gazteriako zinegotzi ordezkaria.
Ordezkoa: Hezkuntza, Herritarren Partaidetza eta Gazteriako Alorreko zuzendaria.

- Epaimahaikideak: - Catalina de Oscariz Udaleko Arte Eskolako Marrazketa irakasle bat.
- Catalina de Oscariz Udaleko Arte Eskolako Pintura irakasle bat.

- Iruñeko Udaleko pedagogo bat.

- Idazkaria: Hezkuntza, Herritarren Partaidetza eta Gazteriako zinegotziak izendatutako administrari bat.

Lanak edozein teknika artistiko erabilia aurkezten ahalko dira, eta Epaimahaiak baloratuko ditu sormena, adierazpena, originaltasuna eta konposizioa, beste elementu artistikoen artean.

Idazkari teknikoak epaimahaiaren balorazioarekin bat datorren saria emateko proposamena helaraziko dio organo eskudunari, hau da, Hezkuntza, Herritarren Partaidetza eta Gazteriako Alorreko zinegotzi ordezkariari, horrek sari-ematearen gainean ebatz dezan. Modalitate guztietan, edozein sari eman gabe uzten ahalko da, baldin eta epaimahaiaren iritziz ezin lanek ez badu behar adinako meriturik edo kalitaterik.

Epaimahaiak accesiten bat proposatzeko aukera: BAI EZ

7. DATU PERTSONALEN TRATAMENDUA.-

Iruñeko Udala da arduradun botere publikoetz baliatuz dirulaguntza kudeatzeko eta saria emateko xedez erabiliko diren datu pertsonalez. Ez da daturik lagako legeak hala aginduta izan ezik. Eskubidea duzu datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko –zuzenak ez badira– eta horiek ezabatzeko Erregistro Orokorrera (Kale Nagusia 2, 31001, Iruña) edo egoitza elektronikora joaz. Datuen tratamendu-zerrenda eta informazio osagarria www.pamplona.es webgunean kontsultatu ditzakezu.

Sari-banaketaren irudiak Udalaren webgune korporatiboan eta sare sozialetan argitaratu daitezke, eta hedabide ezberdinetan zabaldu.

8.- EBATZI ETA JAKINARAZTEKO EPEA.-

Ebatzi eta jakinarazteko epea sei hilabetekoa izanen da, gehienez ere. Epea deialdi honen laburpena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hortik aitzina hasiko da kontatzen.

Instrukzio-organoa dirulaguntza hau kudeatzen duen Alorreko Idazkaritza Teknikoa izanen da.

Sariak emateko ebazpenak amaiera emanen dio administrazio-bideari, eta eskatzaileei jakinaraziko zaie, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legean aurreikusitakoarekin bat.

Ebazpena argitaratzeko beharra: BAI EZ

Baiezkoa bada, non argitaratu:

Iruñeko Udaleko Egoitza Elektronikoa.

9.- KONTUAN HARTU BEHARREKO BESTE BATZUK.-

Paperean entregatu eta saritu ez diren lanak Iruñeko Udaleko Hezkuntza, Herritarren Partaidetza eta Gazteriako Alorrean berreskuratzen ahalko dira (Descalzos k., 72, 3. Sol.), 2021ko otsailaren 5era arte.

Sari-banaketa udal-aretoetan egingen da, Eguberriak baino lehenxeago.

10.- ERREKURTSOAK.-

Lehiaketan parte hartzeak berekin dakar parte-hartzaileek oinarriak onartu eta horiei men egitea.

Lehiaketa honen garapenaren eta oinarri hauen interpretazioaren inguruko gatazkak oro organo emaileak ebatziko ditu.

Deialdi honen, oinarri hauen eta horiek betearazteko har daitezkeen administrazio-ebazpenen aurka errekurso hauek paratzen ahalko dira, aukeran:

- Berraztertze errekurtoa, administrazio-egintzaren egile den udal-organoari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo, bestela, argitara eman eta biharamunetik aitzina.
- Gora jotzeko errekurtoa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta hortik aitzina.
- Administrazioarekiko auzi-errekurtoa, Iruñeko Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean. Epe hori errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina kontatuko da.